



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	FILOSOFIA	Zikloa / Maila	DBHO 1
Irakasleak	Lurdes Villar Alfredo Olarra Iraide Garitaonandia	Ikasturtea	2015-16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>1. Ikuspegi filosofikoa erabiltzea eguneroko gertakariari aurre egiteko garaian, kontzeptu eta termino filosofikoak zehaztasunez eta behar den moduan erabiliz, egoera zehatzak aztertze eta analizatu ahal izateko.</p> <p>2. Ideiak idatziz nahiz ahoz arrazoitzea edo argumentatzea, beste batzuekin alderatuz, diskurtso pertsonal koherentea osatzeko.</p> <p>3. Elkarrizketa filosofikoa lantzea, ikuspegi desberdinen bateratze arrazional moduan ulertuz, errealitateaz dugun ikuspegi pertsonala eraikitze baliagarria izan dadin.</p> <p>4. Testu filosofikoak aztertzea, bertan agertzen diren arazoak identifikatuz, ekarpen pertsonalekin osatutako iruzkin kritikoa egitearren.</p> <p>5. Berdintasunaren eta desberdintasuneko errespetuaren aldeko argudiaketa koherentea lantzea, giza eskubideetan jasotako balioak eta printzipio demokratikoak oinarritzat hartuta, gizarteko bazterketa oro gaitzesteko.</p>	<p>1. Ikuspegi filosofikoa eta ikuspegi horri dagozkion terminoak zuzen eta zehatz erabiltzea, gertatuak esplikatzeko dauden beste esplikazio molde batzuetatik ondo bereiziz.</p> <p>1.1. Ea deskribatzen duen filosofiako termino zehatzen eremu semantikoa.</p> <p>1.2. Ea azaltzen dituen kultura-jatorri desberdinetako filosofien parekotasunak eta desberdintasunak.</p> <p>1.3. Ea gertakariak filosofiaren ikuspegitik interpretatzen dituen.</p> <p>1.4. Ea erabiltzen dituen analisisen ondorioak zeinahi gairi buruzko eztabaidetan.</p> <p>2. Arrazoibide sendo eta kontrastatuetan oinarritutak diskurtso pertsonala osatzea.</p> <p>2.1. Ea azaltzen duen zenbait prozesu modu orokorrean: eboluzio-prozesua, gizarteratze-prozesua...</p> <p>2.2. Ea azaltzen duen gizabanakoaren eta gizartearen arteko erlazioa, zenbait ikuspegitatik (biologikotik, psikologikotik, soziokulturaletik, filosofikotik).</p> <p>2.3. Ea azaltzen duen, gizabanakoaren eta gizartearen arteko erlazioan, hizkuntza-komunikazioaren funtzioa.</p> <p>2.4. Ea koherentziaz azaltzen duen gizabanakoaren eta gizartearen arteko tirabirari buruz duen ikuspegia.</p> <p>2.5. Ea gai den sintesi bat egiteko, arrazoibide pertsonalaren eta harekin bat ez datozen beste arrazoibide batzuen alderatzeetik sortutakoa.</p> <p>3. Elkarrizketa filosofikoa pentsamolde autonomoz ikuspegi guztiak txertatzeko tresna gisa erabiltzea.</p> <p>3.1. Ea parte hartzen duen talde-eztabaidetan, edozein delarik ere gaia: gai moralak, soziokultu-ralak, filosofikoak...</p> <p>3.2. Ea txertatzen dituen beste solaskideen ikuspegiak norberaren arrazoibidean.</p> <p>3.3. Ea hartzen duen erlatibismoaren eta unibertsalismoaren arteko dikotomiaren aurrean jarrera teoriko zehatza.</p> <p>3.4. Ea dikotomia horretako osagai bakoitzetik datorren jokamoldearen adibide praktikorik ematen duen.</p> <p>3.5. Ea erabiltzen duen elkarrizketa filosofikoa (ikaskideekin nahiz pentsalariekin) norberaren lanak (ahozkoak nahiz idatziak) egiteko.</p> <p>4. Filosofia-testuen eta bestelakoen analisisa egitea, testu horien barne-egitura azalduz eta horiei buruzko iruzkin kritikoa eginez.</p> <p>4.1. Ea antzematen duen testu baten ideia nagusia zein den.</p>



	<p>4.2. Ea iritziak eta argudioak bereizten dituen.</p> <p>4.3. Ea aurre egiten dion testu batean gai bati buruz ematen diren arrazoibideei.</p> <p>4.4. Ea iritzi pertsonalik ematen duen testu batean landutako gaiari buruz (ez du zertan iritzi berritzailea izan).</p> <p>5. Diskriminazio molde guztiak baztertzea, generoan oinarritutako diskriminazioa bereziki, ondo errotutako gaitzespen baten bidez (giza eskubideak erreferentziatzen hartuta).</p> <p>5.1. Ea ezagutzen dituen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean zerrendatzen diren eskubideetako batzuk.</p> <p>5.2. Ea aztertzen duen eskubide horietakoren bat errealitatean nola gauzatzen den.</p> <p>5.3. Ea azaltzen duen diskriminazioari buruzko daturik, zeinahi delarik ere hura (generoari dagokiona barne).</p> <p>5.4. Ea adosten duen "berdintasun" kontzeptuaren definizio bat, ikaskideekin elkarriketan.</p> <p>5.5. Ea lantzen duen genero-diskriminazioaren (eta bestelako) aurkako gaitzespen arrazionalik, giza eskubideetan oinarrituta.</p>
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA (denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

1. ebaluazioa (32 saio)

- **Jakintza filosofikoa**

- I.- Mitotik arrazoira.
- II.- Filosofiaren espezifikotasuna.

- **Filosofiaren galderak**

- I.- Filosofiaren adarrak.
- II.- Filosofiaren historia.

- **Metafisika**

- I.- Erreala denaren bila.
- II.- Metafisikari buruzko ikuskerak.
- III.- Hilik al dago metafisika?

2. ebaluazioa (33 saio)

- **Errealitateari buruzko ikuskerak**

- I.- Ontologia
- II.- Mundu- ikuskera zientifikoak

- **Ezagutza**

- I.- Zer da egia?
- II.- Ezagutzaren filosofia

- **Zientzia**

- I.- Ezagutza zientifikoa
- II.- Zientziaren filosofia
- III.- Teknika

3. ebaluazioa (32 saio)

- **Gizakia, naturaren eta kulturaren artean**

- I.- Zer da gizakia?
- II.- Gizakiaren alderdi psikologikoa
- III.- Gizakiaren alderdi kultural eta soziala
- IV.- Gizakiaren alderdi pertsonala

- **Gizakia, filosofiaren argitan**

- I.- Antropologia filosofikoaren gai handiak
- II.- Susmoaren filosofia
- III.- Gizatasunaren beste alderdi batzuk

**-Logika**

I.- Logika tradizionala

II.- Logika sinbolikoa:sarrera

METODOLOGIA

[edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

1. Testu liburuaren jarraipena egingo dugu: FILOSOFIA DBHO 1 (Vicens Vives argitaletxea)
2. Ikasleen aurretiko ideietatik abiatzea, hau da unitate bakoitzeko edukiak landu baino lehen ikasleen aurretiko ideiak aztertuko dira ;
3. Irakaslearen azalpenak: blokeetako edukien atean dauden loturak azpimarratuko dira, horrela zenbait jardueraren bidez, edukien artean lotura-sare aberats bat dagoela ikusiko dute ikasleek
4. Ikasleak taldekatzea: banakako lanak eta taldeko lanak txandakatuko dira, ikasleen arteko lankidetzak sustatzeko. Unitate guztietan, eta batez ere hausnartzeko jardueretan, banaka nahiz taldeka egindako lana talde handian adierazteko uneak egongo dira.
5. Irakurmena lantzeko besteak beste testu iruzkinak egingo dira, mapa kontzeptualak.....
6. Baliabide teknologikorik egokienak erabiltzea ikasgelan (adibidez: “ El espinazo de la noche” dokumentala; “La filosofía aquí y ahora”.....) kasu guztietan ezinbestekoa da ikasleen hausnarketa bultzatzea.

PREZI: <http://prezi.com/mho72fyomhgg/mitotik-logosera/>
http://prezi.com/y_ij1fgnur7q/filosofia-zientzia-eta-beste-jakintza-mota-batzuk/
<http://prezi.com/0zfnmbdueb80/gizakiaren-dimentsio-filosofikoa-platon/>
<http://prezi.com/jm6vzww0mcm/gizakiaren-dimentsio-filosofikoa-hiztegia/>
http://prezi.com/a4j7kfec_4u/agustin-hiponakoa/
http://prezi.com/kgmhd6eqlz_b/marx-gizakiaren-dimentsio-filosofikoa/
<http://prezi.com/il7xlwswu0sl/determinismoa-askatasuna-ukatzen-duten-teoria/>

Blogger: <http://aierupena.blogspot.com.es/>

7. Aurreko liburua bat derrigorrez irakurri behar dute “**FILOSOFIA ALABARI AZALDUA**” Roger-Pol Droit Galdera batzuen bidez liburua landuko dugu eta bertan dauden ideiak berreskuratuko ditugu, hausnarketa kritikoa bultzatuz.

EBALUAZIO TRESNAK [ahozko eta idatzizko

probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]

Idatzizko proba objektiboa: banakakoak izango dira, haien bidez konprobatuko dugu ea ikasleak unitate didaktikoren oinarritzko ezagutzak, arrazoitze metodoak, prozedura jakin batzuen aplikazioan... ondo erantzuten duen.

Eguneroko lana ikasgelan: aztertzen diren arloak honako hauek dira: interesa, motibazioa, lan ohiturak, arreta, parte-hartzea...

Ikaslearen koadernoak: ikaslearen koadernoak kontrolatuz, honako alderdi hauek balora ditzakegu: idazmena, egindako jarduerak, ondorioak eta laburpenak egin dituen edo ez.

Irakurmena: ikasgelan irakurtzen diren testuen bidez haien ulermena gradua landuko dugu, eguneroko bizitzan

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

- Idatzizko probak: %80

- Eguneko behaketa, klaseko jarrera eta interesa: %10

- Ikasgelan egindako ariketak koadernoan idatzita eta irakurmenaren lanketa: %10



gertatzen diren arazoekin lotzeko ahalmena eta arrazoitzeko gaitasuna.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena,errekuperazio-sistema...]

Ikasle bakoitzak ikasturtean zehar suspenditutako atalak edo zatiak errekuera ditzake froga baten bitartez, eta irakasleak ondo baderitzo lan osagarriak eginez.

Ebaluaketa bakoitzari dagokiona errekueratuta ez badago, maiatzeko deialdian izango du gainditugabe dituen atalak edo ebaluazioak berreskuratzeko aukera. Dena gaindituz gero, azken nota guztien batz bestekoa izango da.

Oraingoan, errekueratu ezean, ekaineko proban minimo azterketa bat prestatu beharko du, nahiz eta aurretik ebaluaketaren bat gaindituta izan. Kasu horretan azken nota ezin izango da 5 baino altuagoa.

OHARRAK